



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GRADU AMAIERAKO LANA

ESKIZOFRENIA PAIRATZEN DUTEN PERTSONEI ZUZENDUTAKO
JARDUERA FISIKO PROGRAMAREN DISEINUAREN PROPOSAMENA

EGILEA: LEIRE BERZOSA ETXEBERRIA

ZUZENDARIA: MONTSERRAT OTERO PARRA

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA

IKASTURTEA: 2016-2017

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK.....	5
2.1 DEFINIZIOA.....	5
2.2 ESKIZOFRENIA MOTAK.....	5
2.3 PREBALENTZIA	6
2.4 MANIFESTAZIOAK.....	6
2.5 DIAGNOSTIKOA.....	10
2.6 ESKIZOFRENIAREN TRATAMENDUA	11
A) TRATAMENDU FARMAKOLOGIA.....	11
B) PSIKOTERAPIA	13
2.7 SOZIEATEAK SORTUTAKO USTE FALTSU ETA TABUAK.....	14
ESTIGMA.....	15
2.8 ESKIZOFRENIA DUTEN PERTSONEN EZAUGARRI OROKORRAK ...	16
3. ESKIZOFRENIA DUTEN PERTSONEKIN EGINDAKO JARUDERA FISIKO IKERKETEN AZTERKETAK	20
4. JARDUERA FISIKO PROGRAMAREN PROPOSAMENA	34
4.1 JUSTIFIKAZIOA	34
4.2 SARRERA.....	35
4.3 POPULAZIOA	35
4.4 INGURUGIROA	36
4.5 POPULAZIOAREN BEREIZITASUNAK.....	37
4.6 IRAUPENA.....	37
4.7 METODOLOGIA	38
MAIZTASUNA	38
INTENTSITATEA.....	39
DENBORA	40
MOTA	40
BEROKETA ETA LASAITASUNERA ITZULIA.....	41
4.9 HELBURUAK	45
4.10 KRONOGRAMA.....	46
MAKROZIKLOA.....	46

MESOZIKLOAK	47
MESOZIKLOAK: JARDUEREN KRONOGRAMA	48
MIKROZIKLO EREDUAK – 1. HILABETEA.....	51
MIKROZIKLO EREDUAK– 2. HILABETEA	57
MIKROZIKLO EREDUAK – 3. HILABETEA	63
5. ONDORIOAK.....	69
6. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	70
7. ERANSKINAK.....	73

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

GRAFIKOA 1: AZKENEKO 3 HILABETEETAN EGINDAKO JARDUERA FISIKO INDARTSUA.....	29
GRAFIKOA 2: MIDM	39
GRAFIKOA 3: INTENTSITATEA	40

TAULEN AURKIBIDEA

TAULA 1: HITT ENTRENAMENDUARENTZAKO DISEINUAREN IKERKETA	23
TAULA 2: JARDUERAK - SAIO BANAKETA	46
TAULA 3: MESOZIKLOAK	47
TAULA 4: MAKROZIKLOA.....	47
TAULA 5: MESOZIKLOA – 1. HILABETEA	48
TAULA 6: MESOZIKLOA – 2. HILABETEA.....	49
TAULA 7: MESOZIKLOA – 3. HILABETEA	50
TAULAK 8-19: MIKROZIKLOAK - 1. HILABETEA.....	51-58
TAULAK 20-31: MIKROZIKLOAK - 2. HILABETEA.....	59-64
TAULAK 32-43: MIKROZIKLOAK - 3. HILABETEA.....	65-70
TAULA 44: BORG ESKALA	75
TAULA 45: PANASS GALDETEGIA	76

1. SARRERA

Lan honetan, eskizofrenia duten pertsonei zuzendutako jarduera fisiko programa bat proposatu egiten da.

Hasieran, eskizofreniaren inguruko informazioa ematen da, lanean aurrerago azalduko diren irizpideak arrazago ulertzeko eta gaixotasunari buruz informatzeko.

Ondoren, eskizofrenia eta jarduera fisikoaren inguruko ikerketak eta programak aztertu egiten dira, onurak eta jarduera mota egokienak bilatu eta aurkitzeko asmoz. Bilaketa egin ostean, eta ondorio positiboak daudela ikusita, programaren proposamena azaldu egiten da, errebisioko ikerketa guztien arteko modelo bat bilatuz.

Proposamenean, hilabeteko jarduera fisikoko programa bat sortu egin da, eskizofrenia duten pertsonentzako onurak sortzen dituzten jarduerekin eta progresiozko metodologia batekin.

Programa honek, helburutzat, jarduera fisikoaren eta eskizofreniaren arteko erlazio positiboa erakutsi nahi du, lortzen diren onurak zeintzuk diren azalduz.

2. DEFINIZIOA ETA EZAUGARRIAK

2.1 DEFINIZIOA

Portaera, emozioak, pertzepzioa eta pentsamendua bezalako garun funtzioei kalte egiten dien gaixotasun mental bat da Eskizofrenia (Diaz, 2013). Sintoma negatiboen, sintoma positiboen eta sintoma kognitiboen agerpenagatik ezaugarritzen den gaixotasun desberdinak biltzen dituen trastorno bat da (Barbado, 2016). Gaixotasun hau, sintoma psikologiko batzuk sortzen dituen buruko osasuneko trastorno bat da. Sintomak, haluzinazioetatik eta delirioetatik sortutako portaera aldaketak eta beste arazo kognitibo asko izan daitezke (Kelland, 2015).

Arazo pertsonal eta emozional multzo batean datza, pertsona bakoitzean manifestazioa desberdina izanik. Eskizofrenia duen pertsonak, bere emozio eta pentsamenduetan distortsio larri bat esperimentatzen du, eta hau da ezaugarri nagusia. Bestalde, existitzen ez diren gauzak entzutea edo ikustea, bere ingurunetik isolatzea, bere itxuraz eta egin beharrez oharkabetzea edo egia ez diren gauzetan sinestea ohikoa da (Fedeafes, 2017).

2.2 ESKIZOFRENIA MOTAK

Honako hauek dira eskizofrenia mota desberdinak (Fedeafes, 2017):

- Paranoidea: sintomak aluzionazioak eta delirioak dira
- Desorganizatua: gogo-aldarte alterazioak nagusitzen dira
- Katatonika: trastorno motorrak nagusitzen dira
- Desberdindu gabea (Indiferenciada): Mota desberdinen sintomak ageri dira, baina ez dago gailentzen den sintomarik
- Hondakinezkoa (Residual): Sintoma aringarriak, gaixotasuna kronikoa denean (Fedeafes, 2017).

4 eskizofrenia submota bereizi ditzakegu pairatzen diren sistomen arabera. Hala ere, paziente bakoitza bakarra denez, sintoma, pronostiko eta ebaluazioa desberdinak izango dira (Díaz, 2013):

- Eskizofrenia paranoidea: delirioak eta aluzionazioak nabarmentzen dira
- Eskizofrenia sinplea. isolamendu sozuala, inizatiba edo kemena gutxitu egiten dira
- Eskizofrenia hebefrenikoa: erantzun emozional desegoki bat ageri da, lengoaiaren alterazio larriak ekarriz
- Eskizofrenia katatonikoa: alterazio motore bortitzak, agitazio edo mugimendu ezaren ezaugarriak izanik (Díaz, 2013).

2.3 PREBALENTZIA

Populazioaren %1ari kaltetzen dion gaixotasun larri bat da eskizofrenia. Lau pertsonetatik batek, bere bizitza osoan zehar, nahaste edo trastorno mental larri bat pairatu egiten du (Fedeaefes, 2017). Historian zehar, eskizofrenia tasa eta frekuentzia mantendu egin da biztanlerian. Denboran zehar eta munduko leku guztietan biztanleriaren %1ak eskizofrenia pairatu izan du. Eskizofreniaren agerpena, kasu gehienetan 15-30 urte tartean asten da gizonezkoetan, eta 25-35 urte tartean emakumezkoetan; aipatzekoa da ere gaixotasuna gizonezkoetan agertzeko maiztasuna handiagoa dela emakumezkoetan baino. (Díaz, 2013).

2.4 MANIFESTAZIOAK

Sintomei dagokionez, trastorno psikotikoak deituriko multzoak orokortzen ditu eskizofreniaren sintomak, pazienteak errealitatearekin kontaktua galtzeko sortzen diren sintomak izanik. Trastorno hauek agerraldi psikotiko moduan gertatzen direnean eta era kroniko batean garatzen direnean, eskizofrenia deitu egingo diogu (Díaz, 2013).

Eskizofreniaren sintomak, orokorrean, jarreraren eta pentsamenduaren edukiei kalte egiten die. Hauek negatiboak, positiboak eta kognitiboak izan daitezke: Klasikoki sintoma negatibo eta positiboetan zatitu egiten dira, sintoma kognitiboak deituriko batzuk ere gehitzen zaizkie (Díaz, 2013):

- Sintoma positiboak: gaixoan berriro agertzen diren trazuak, besteak beste, delirioak, haluzinazioak eta jarrera edo pentsamendu aldaketak
- Sintoma negatiboak: pazientearen pertsonalitatean, harreman sozialetan eta animoan eragiten dutenak dira
- Sintoma kognitiboak: memorian eta egite funtzioetan murrizketa bat sortzen dutenak (Díaz, 2013).

Sintoma espezifikoak ondoren zehazten dira (Díaz, 2013):

a) Delirioak edo ideia deliranteak: pazienteak baieztatzen dituen uste faltsuak dira logikoki sinestezinak direnak. Honetarako, pazientearen errealitatearen ezaugarri batzuetan oinarritzen da, interpretazio oker bat egiten duen arren.

- Pertsekuzio delirioak
- Aurreiritzi delirioak
- Handitasun delirioak
- Autoerreferentzialitate edo referentzia delirioak
- Delirio somatikoak
- Delirio ertomaniakoak
- Delirio zelotipikoak (Díaz, 2013).

b) Haluzinazioak: Pazienteak bere garunaren barruan benetakoak ez diren gauzak entzun, ikusi edo sentitu egiten ditu.

- Entzumenezko haluzinazioak
 - Taktilak edo zenestesikoak
 - Usaimenekoak
 - Dastamenekoak
 - Ikusmenekoak (Díaz, 2013).
- c) Pentsamenduaren alterazioak: pentsamendua batzuetan desorganizatu egiten da eta ideiak asoziatzeko gaitasuna galdu egiten da, ideia hauek gai batetik bestera aldatuz inongo konexiorik gabe. Galtze hau larria denean eta edukia guztiz inkoherentea denean, pentsamenduaren desorganizazioa deitzen diogu
- d) Afektibitatearen alterazioak: pazienteak sentitzen duena azaltzeko zailtasuna du. Norbaitenganako afektua edota beroa bezalako sentimenduak adierazteko gaitasuna galdu egiten da
- e) Jarreraren alterazioak: higiene pertsonala galdu egiten da, familia eta lagunengatik isolatu egiten dira eta askotan energia eta motibazioa galdu egiten dute
- f) Kognizioaren alterazioak: pazienteak atentzioa jarraitzeko edo lan desberdinak batera egiteko gaitasuna galdu egiten du. Honetaz gain, memorian akats batzuk eduki ditzake (Díaz, 2013).

Esan beharra dago, guztiok noizbait pairatu ditugun sintomak, ala nola, tristura, antsietatea, insomnioa etab., trastorno mental larritzat hartzen direla bakarrik portaera sozial neurrigabe bat eragiten dutenean eta pertsonarentzat ondoeza sortzen denean denbora luze batez. Portaera hauek, hondatze soziala, lan esparruko hondatzea edota pertsonaren beste jarduera garrantzitsuen esparruko hondatzea izango dira (Fedeaefes, 2017).

Eskizofreniaren sintomen artean, memoria defizita eta garapenerako arazoak daude ezkutuan, haluzinazioen edo ilusioen atzean. Medikazioak edo

antipsikotikoek agerian dauden sintoma hauek gutxitu ditzakete, baina ezkutuko sintomekin, ordea, zailagoa da: informazioa prozesatzea, atentzio falta, inteligentzia emozionala edo arazoak gainditzeko gaitasuna. Gaixoarentzat arazo hauek gainditzea, agerikoak gainditzea baino zailagoa izan daiteke (Sullivan, 2016).

Gaixotasunaren manifestazioak desberdinak dira pertsona bakoitzean, ohikoak diren arazo komun batzuk ageri dira (Fedeafes, 2017):

- Anomaliak beraien sentimenduak azaleratzekoan
- Inguruarekin komunikatzeko zailtasunak: Hitz berriak erabiliz, esaldi baten ordena aldatuz edo hitz egiterakoan totelduz
- Portaeran aldaketak
- Pentsatzeko eran eta errealitatearen kontzientzian anomaliak (Fedeafes, 2017).

Eskizofreniaren agerpenaren zergatien artean, osagai genetiko bat dagoela aipatu beharra dago. Izan ere, eskizofrenia duten pazienteen seme-alabek, aurrekaririk gabeko seme-alabek baino eskizofrenia pairatzeko aukera gehiago edukiko dituzte (Díaz, 2013).

Osagarri genetiko honetaz gain, pazienteen gehiengoaren gaixotasunaren agerpenean beste faktore batzuk gehitu behar dira, hala nola (Díaz, 2013):

- Alkoholaren eta drogen kontsumoa (Kanabisa, kokaina, anfetaminak etab.)
- Loaldiaren ereduaren aldaketak
- Bizitza gertaera estresagarriak
- Faktore sozialak /lehiakortasuna / gainesfortzua (Díaz, 2013).

Genetika faktore eta kanpoko faktore hauen batuerak, desoreka kimiko bat sortu dezake garunean, aldaketa neuro-transmisoreetan aldaketa batzuk sorraraziz, dopaminaren eta serotoninaren menpekoak direla, eta aldaketa hauek eskizofrenia izatera bideratzen dute pazienteea (Díaz, 2013).

Motibazio falta, eskizofreniaren ezaugarri komun bat izan ohi da, honengatik beharrezkoa da eskizofreniaren sintoma kognitiboak lantzeko aukera egokiago bat bilatzea (Kelland, 2015).

Paziente askok txikitatik arazo sozial eta akademikoak dituzte. Gaixotasunaren sintomak hasi baino urte batzuk lehenago, pazientean, kontzentratzeko edo arreta jartzeko zailtasunak ikusi ditzakegu, antsietatea eta tristura handituz, lo egiteko zailtasunak pairatuz eta familia eta lagunengandik banantzeko eta bakarrik egiteko jarrerak adieraziz (Díaz, 2013).

2.5 DIAGNOSTIKOA

Gaur egun, ez dugu eskizofrenia diagnostikatu egingo digun inongo proba espezifikorik. Diagnostikorako, orokorrean, psikiatrak familiarekin eta pazientearekin dituzten elkarrizketetan oinarritzen dira. Honez gain, historia kliniko zehatz bat egin ohi da, proba osagarri batzuekin: Irudi proba (TAC edo Resonantzia magnetikoa), proba analitikoak, esploratze neurologikoa, elektroentzefalograma, gernuko toxikoen analisisa, elektrokardiograma... proba hauek diagnostikoan lagundu dezakete, bai eta beste gaixotasun batzuk alde batera utzi ere. Pertsona batek agerpen psikotiko bat izatean, ez du zertan eskizofrenia izan beharrik, trastorno mota desberdinak sintoma psikotikoekin manifestatu daitezkeelako (Díaz, 2013). Beraz, psikosi horietako bat eskizofrenia bezala diagnostikatzeko, gida gehienek diotenez, sintoma horiek jarraituak izan behar dira gutxienez 6 hilabetez (batzuetan askoz gehiago) eta psikosi agerpen horiek ezaugarri zehatz batzuekin agertuak izan behar dira (Díaz, 2013).

Gaixotasun mental larri baten diagnostikoa medikuek egin dezakete bakarrik (Fedeafes, 2017).

Eskizofreniaren sorrera, modu askorengatik eta modu askotan hasi daiteke, bai poliki eta progresiboki edota azkar eta bortitz (Díaz, 2013).

2.6 ESKIZOFRENIAREN TRATAMENDUA

Gaixotasun mentalak tratamendu egoki batekin kontrolatu daitezke. Duela hamarkada gutxi batzuk, gaixotasun mentalak zituzten pertsonak etxean edota zentroren batean pasatzen zuten bizitza osoa ia ezer egin gabe. Gaur egun, gehiengoak komunitate eremu batean tratatuak dira, sozietatean sartuz, mentalitate eta tratamenduetan lortutako aurrerapenei esker (Fedeafes, 2017).

Tratamendu desberdinak diseinatu daitezke eskizofrenia motaren arabera. Izan ere, oso garrantzitsua da interbentzioak pertsonalizatuak izatea kasu zehatz bakoitzarentzat (Fedeafes, 2017).

Normalean, tratamendu farmakologikoa, errehabilitazio soziolaboralarekin, psikoterapia tratamenduarekin eta familiaren laguntzarekin bateratzen da (Fedeafes, 2017).

a) Tratamendu Farmakologia

Eskizofrenia gaixotasun kroniko bat da, beraz, pazienten bizitza osoan zehar iraungo duen zerbait da, eta tratamendu farmakologiko bat behar du.

Gaur egun, badakigu, tratamendu farmakologiko egoki bat eramanez, sintomak kontrolatu daitezkeela pazientearen egonkortasun bat lortuz. Honetarako garrantzitsua da pazienteak ulertu eta onartzea medikazioa ezinbestekoa dela gaixotasunean berriro ez erortzeko, bere pronostikoa ez okertzeko eta bizitza normal bat eraman ahal izateko. Badaude oso eraginkorrak diren medikamentu desberdinak, pazientearen sintomak oso ondo kontrolatzen dituztenak. Oso garrantzitsua da medikamentu desberdinak ezagutzea bakoitzaren onura eta kontradikzioak ezagutzeko. Tratamendu farmakologikoa indibidualizatua izan behar da, medikazio mota, konbinazio eta dosiak pertsona bakoitzean aldatuz. Tratamendua pera jarrai batean jarraitzea oso garrantzitsua da eraginkorra izateko (Díaz, 2013).

Ondoren zehazten dira erabiltzen diren farmako ohikoenak (Díaz, 2013):

Antipsikotikoak

Antipsikotikoak, garuna, aurkitzen diren desoreka kimikoaren aurrean, babes bat sortzen duten farmakoak dira, garuneko funtzio alteratuak normalizatuz eta nerbio sistema zentral erregulatuz, berriro erortze horiek ekiditeko amoz (Díaz, 2013).

Gaur egun, antipsikotiko asko dauzkagu, helburua, bigarren mailako efektu gutxienekin, hobekuntza kliniko egokiena sortzen duen farmako dosi optimoa lortzea izanik (Díaz, 2013).

Honako hauek dira Antipsikotiko mota ezberdinak (Díaz, 2013):

- Antipsikotiko tipikoak
- Antipsikotiko atipikoak
 - a) Eguneroko antipsikotiko atipikoak
 - b) Luzerako askatze antipsikotiko aipikoak (Díaz, 2013).

Antipsikotikoak, edozein medikamenturekin gertatzen den bezala, bigarren mailako efektuen sorrera eragin dezake. Bigarren mailako efektu hauek ez dute zertan gure osasunean eragina izan behar, baina kontuan izan beharrekoak dira (Díaz, 2013).

Eskizofreniaren kasuan badaude bigarren mailako efektuak, hemen azaltzen dira efektu goriek, baina tratamenduak hauetaz gain beste batzuk eragin ditzake (Díaz, 2013).

Antipsikotikoen bigarren mailako efektuak:

- Ikuspen borrosoa
- Pisu gehikuntza
- Somnolentzia
- Muskuluen zurruntasuna, distonia muskularra
- Hanka ezinegonak. Akaisia

- Gorputz dardarak
- Listu gehikuntza, aho lehorra
- Zailtasun sexualak
- Menstruazio irregularra
- Pisa egiteko zailtasunak (Díaz, 2013).

b) Psikoterapia

Eskizofreniaren tratamendua ez da bakarrik eguneroko medikazio hartzean oinarritzen. Honi gehigarri bezala, mediku komunitateak pazienteentzat bideratutako terapia psikosoziala sortu egin dute, benetako behar bat dela baieztatuz (Barbado, 2016).

Psikoterapiarekin lortzen den euskarria garrantzitsua da familian, lanean eta bizitza sozialean gaixotasunak garatzen dituen efektuei aurre egiteko. Tratamendu psikosozial espezializatuak erabiltzen dira, ala nola: Errehabilitazio programak, jarduera okupazionalak, portaera terapiak, jokabide sozialeko terapiak, familien eta eragindakoen psiko-hezkuntza, etab (Fedeaefes, 2017).

Terapia psikosoziala

Psikosian landutako portaera terapia kognitiboa, depresioaren eta antsietatearen tratamenduaren formularen printzipio ezagunetatik garatu egin da, baina, aldatua eta egokitua izan da. Aldaketa hau, estresaren ahultasunaren modeloaren arabera egin da, eta aldaketak sintoma psikotikoen tratamendura egokituak izan dira, gaixotasunaren ulermen biopsikosozial batetik. Terapia psikosozialean, komunikazio estrategiak landu egiten dira, bai eta emozioen ezagutzaren estrategiak, azkeneko honen helburua gaixoaren enpatia lortzea izanik (Barbado, 2016).

Pazientearen integraziorako eta bizitzaren kalitaterako, tratamenduaren aderentziaren gakoetako bat, jarreraren lana eta emozioen pertzepzioa izango dira. Familiarren kasuan, agerraldi psikotiko posible bat abisatzen duen

seinaleen identifikazioan laguntzen du, eta lehenago psikiatra batengana joan ahal izateko (Barbado, 2016).

Adituak, printzipioz ez dute lan psikosoziala baztertzen eskizofrenia duen paziente batekin. Beti egongo da bizitza onargarri baten kalitatea errekuperatzeko eta gaixotasunera egokitzeko ikasketaren esperantza, hori bai, beti ikusi beharko da ze estadioan aurkitzen den pazientea (Barbado, 2016).

Prozesu terapeutikoa ezin dezake terapia psikosoziala alde atzera utzi, ezta alderantziz ere. Honi lotuta, María José Sánchez psikologoak honako hau dio; “ Oso zaila da, medikazioa hartzen duenean ere, pazientearen erresistentziaren aurka joatea, bere patologiaren eta garunaren presoa izanik, askotan bere aurka konspirazio bat egiten ari direla pentsatzen dutelako eta terapia errefusatu egiten dute” (Barbado, 2016).

2.7 SOZIETATEAK SORTUTAKO USTE FALTSU ETA TABUAK

Gaixotasun mentala duten pertsonen, inguru sozial eta familia inguru baikor bat eta mediku tratamendu eta farmakologiko egoki batekin bizitza normalizatu bat eraman dezakete (Fedeafes, 2017).

Gaixotasun mentala duten pertsonen bizitza normal bat eramateko aukera eduki beharko lukete, denek baitaukagu lanerako eta bizitza normalizatu baterako eskubidea. Egungo sozietatean ordea, askotan aurkitzen ditugun aurreiritziak direla eta, eskubidea hauek lortzeko zailtasunak sortzen dira (Fedeafes, 2017).

Gaixotasun mentaleko adituak diotenez, gaur egun, estigma da errekuperazioa moteldu edo gelditzen duen oztopo larrienetako bat. (Fedeafes, 2017).

Estigma

Gaixotasun mentala zuzenean biolentziarekin lotuta dagoenaren ideiak ez dauka inongo oinarri zientifikorik. Ezin daiteke esan gaixotasun mentalak dituzten pertsonak bortitzagoak direnik, ezta gaixotasun mentalak ez dituzten pertsonak baino jarrera erasotzaileagoak izango dituztenik (Fedeafes, 2017).

Gaixotasun mentalak dituzten pertsonak ez dira sozietatearentzako arriskutsuak ohi izaten. Trastorno mental batzuetan bakarrik, gaixotasuna pairatzen duen pertsona tratamenduaren gain ez dagoenean, inguruarekiko, familiarekiko edota bere pertsonarekiko jarrera bortitzeko atalak garatu ditzake. Egia esanda, ohikoagoa da, gaixotasun mentalak duten pertsonak tratatu txar eta abusuen biktimak izatea, beraien eskubideetan kalte eginez (Fedeafes, 2017).

Gaixotasun mentala duten kolektiboari lotuta dagoen estigmari aurre egiteko, garrantzitsua da, profesionalak gaixotasunaren inguruko informazio errealista eta egokia ematea familia, paziente, autoritate eta sozietateari, informazio hau komunikabideei eta hezkuntza esparruan ere zabaltzeko asmoz (Torres, 2016).

Kolektibo honen kontzeptu negatiboak, erruduntasun, bakardade, larritasun, sufrimendu eta tristura sentimenduan garapena suposatzen du bai gaixoen eta bai gaixoen familiaren artean. Honekin lotuta, auto errefusatzea, lotsa, bakartzea, gaitasunen ezeztapena, motibazio galtzea, desilusia eta gaixotasunaren onartze eza agertzen dira, beste askoren artean (Fillat, 2016).

Gaixotasun mentala duten pertsonak "autoestigmatizatzen" lehenak dira, horregatik beharrezkoa da sozietatearen sentsibilizazioa lortzea eta gaixotasun mentala duten pertsonen ahalduntzea sustatzea (Fillat, 2016).

2.8 ESKIZOFRENIA DUTEN PERTSONEN EZAUGARRI OROKORRAK

Jarduera fisiko gutxien egiten duten kolektiboen artean, nagusienetarikoak, gaixotasun mentalak dituzten pertsonak dira. Gaixotasun mentalek dituzten ezaugarriengatik, bakarrik egon ohi dira eta etxean gelditzen dira ezer egin gabe. Askotan, arazoa, “klinofilia gehitua”-n dago, hau da, denbora asko irauten dutela ohean, edo telebista ikusten duten bitartean sofan etzanda egoten dira denbora asko (Asafes, 2016).

Honez gain, aipatu behar da, gaixotasunari aurka egiteko hartzen duten medikamentuen bigarren mailako efektuetako bat janguraren sorrera dela. Jangura hazkunde hau, etxean denbora asko mugitu gabe egoteari gehitzen badiogu (etxean pilatzen dituen gehiegizko kaloria horiek kontuan hartuz), emaitzak nabariak dira: Obesitate indize nabariak dituen kolektibo baten aurrean aurkitzen gara, bihotzeko bat izateko edo diabetes gaixotasuna izateko arriskua handituz, aipatutako azken bi hauek, jarduera fisikoarekin prebenitu ahal diren heinean (Asafes, 2016).

Gaixotasun mentala duten pertsonetan, jarduera fisikoa dosi egoki batean egin behar da, intentsitate eta iraupen egoki batekin. Askotan, paziente hauek, errehabilitazio programa ez dute betetzen, bai kontzentrazio edo faltagatik, bai eta paranoia edo kezkaren bat izateagatik, askotan medikamenduaren efektuengatik eratorriak (Collado, García eta Verdú, 2012).

Eskizofrenia duten pertsonak, historikoki, heriotza tasa handiagoa dute, bai eta komorbilitate fisiko tasa handiagoa ere. Eskizofrenia pairatzen dutenen artan, behintzat %50ak gaixotasun fisiko edo psikiatriko komorbido bat dutela frogatu egin da. Pairatzen dituzten gaixotasun fisikoen artean, ohikoenak, gaixotasun kardiobaskularrak, metabolikoak, endokrinoak, neurologikoak, infekziosoak eta substantzien abusuengatik eratorritakoak dira (Irles et al, 2011).

Autore desberdinek aipatzen dutenez, eskizofrenia duten pertsonen pairatzen duten komorbilitate hau, azpizaindua dela diote, normalean oharkabetua den gauza bat izanik (Irles et al, 2011).

Ondorioz, askotan, paziente hauek, ez dituzte beharrezko osasun zaintzeak edukitzen. Eskizofrenia duten pertsonen mediku zaintze txikiagoak dituzte, eta populazio orokorrarekin alderatuz, tratamenduak betetzeko okerrago moldatzen dira (Irles et al, 2011).

Españan egindako ikerketa desberdinek ondorioztatzen dute, eskizofrenia eta komorbilitate fisikoaren artean, adinarekin handitzen den hilkortasun tasa altuarekin erlazionatua dagoela (Irles et al, 2011).

Gehiegizko komorbilitatea patologia talde batzuekin erlazionatzen da. Eskizofrenia duten pertsonen, populazio orokorra baino tasa handiagoak dituzte honako hauetan (Irles et al, 2011):

- Metaboliko-endokrino gaixotasunak: Diabetesa eta sindrome metabolikoa
- Gaixotasun kardiobaskularrak
- Arnasketa gaixotasunak, tabakismoaren ohitura eta beste faktore batzuk erlazionatuak agertzen direlarik
- VIH, C eta B Hepatitis birusaren infekzioak
- Substantzien abusuengatik sortutako trastornoak (Irles et al, 2011).

Eskizofrenia duten pertsonen hilkortasun tasa, adina eta sexuagatik estutua, 2-3 aldiz altuagoa da; Populazio orokorraren bizi itxaropena baino 15 urte txikiagoa da eta heldugabe hil egiten dira. Hilkortasun tasa hau %25ean pertsona bere buruaz beste egiteari lotzen zaio, %12a istripuei eta %60a gaixotasun somatikoei. Azkeneko hauengatik hil egiteko aukera, populazio orokorraren aukera baino askoz handiagoa da, normalean honako hauekin lotua egonda (Irles et al, 2011):

- Arnasketarekin lortutako gaixotasunak (%42,2)
- Gaixotasun kardiobaskularrak (%38)
- Minbizia (%18,5) (Irles et al, 2011).

Bestalde, eskizofrenia duten pertsonak, arrisku faktore handiagoak dituzte aipatutako gaixotasun hauek agertzerako orduan. Arrisku faktore hauek baskularrak, metabolikoak edo bestelakoak izan daitezke, ala nola (Irles et al, 2011):

- Sedentarismoa
- Azukre eta gantz dieta hiperkalorikoak
- Obesitatea edo gainpisua
- Tabakismoa
- Bakoitzaren zaintze falta (Irles et al, 2011).

Gaixotasun mental larriak dituzten pertsonak arriskuak ezagutzen dituztela kontsideratzen da, baina askotan, ez dira hauek dakartzaten larritasunez oharkabetzen. Beraz, garrantzitsua da, aldagarriak diren arrisku horiek gutxitzeko ekintzak garatzea (Irles et al, 2011).

Bestalde, eskizofrenia duten pertsonen ezaugarri nagusiak zeintzuk diren ikusita, jarduera fisikoa egiteko zailtasunak dituztela esan dezakegu. Ala ere, jarduera fisiko praktika eta osasunaren arteko erlazio onuragarri bat dagoela ikusi daiteke.

Gaixotasun mentalak dituzten pazienteek, jarduera fisikoa, osasuna eta egoera fisikoa hobetzeko tresna bezala erabiltzen dute, beraien garapen emozional eta mentalean laguntzen duen bitartean, integrazio soziala sustatuz eta kolektiboaren irudia normalizatuz (Ortiz, 2016).

Psikologiaren ikuspuntutik, praktika fisikoetatik kontuan hartu behar diren hainbat aspektu daude: Estresaren eta estutasunaren aurkako onurak (askatasunaren sentazioaren eta errutinatik alde egiteko sentazioetatik

eratorriak), aspektu sozializatailea (lagun berriak aurkitzeko aukera ireki eta gustu berdinak dituzten talde batean sartzeko aukera sortuz), gaintze sentimenduaren lorpena edo erronka pertsonala (pixkanaka pixkanaka, ezarritako helmugak lortzen joanez, bakoitzaren errealizazio sentimendua sortuz) eta bakoitzaren gorputza zaintzearen edota gorputzaren kontrolaren sententzioaren lorpena (Asafes, 2016).

Honez gain, ikertua dago, jarduera fisikoa egiten duen pertsonaren humorea eta afektibitatea askoz positiboagoak bihurtzen direla. Ikuspuntu biologiko batetik ere onurak geroz eta nabariagoak dira: Tonu muskularraren hobekuntza, gaueko deskantsurako lo egiteko erraztasuna eta kolesterola, hipertentsioa, diabetesa eta gaixotasun kardiobaskularrak saihesteko aukera eta gainpisua ekiditeko aukera (Asafes, 2016).

Ikerketa desberdinek, adimenaren trastornoa duten pertsonengan jarduera fisikoak dauzkan onurak indartzen dituzte, eguneroko jardueren burutzean laguntzen duelako, honez gain, astintzea txikitzen du, bai eta portaera depresiboak (Collado, García eta Verdú, 2012).

3. ESKIZOFRENIA DUTEN PERTSONEKIN EGINDAKO JARUDERA FISIKO IKERKETEN AZTERKETAK

Gaur egun, eskizofrenia duten pertsonentzako jarduera fisiko programa gutxi argitaratuak daude, oraindik asko garatu gabe den gai bat izanda. Hala ere, honen inguruan idatzi eta ikertu duten autoreak badaude, eskizofreniak eta jarduera fisikoak daukaten erlazioa aztertzen dutenak. Ikerketa eta analisi bibliografiko desberdinak erabiliz, ondorio eta erlazio esanguratsuak aurkitu izan dira.

Andrade e Silva eta kolaboratzaileek (2015) egindako ikerketan, eskizofrenia eta jarduera fisikoaren inguruko onurak aztertzeko 20 asteko ikerketa bat aurrera eramane zuten. Ikerketa honetan, erresistentzia programa bat eta erresistentzia aerobikoa eta indarra konbinatzen dituen programa bat aztertu ziren (jarduera konkurrentea).

Ikerketaren helburua, 20 asteetan erresistentzia kardiobaskularrerako entrenamendu programa batzuk, paziente psikotikoetan eta sintoma depresiboak dituzten pazienteengan, bizitza kalitatean eta faktore neurotrofikoan (BDNF) izan ditzaketen ondorioak aztertzea izan zen.

Ausazko entsegu kliniko kontrolatu honetan, hasieran, eskizofrenia zuten 47 paziente aukeratu egin ziren, baina, ikerketa bukatu zuten 34 paziente egon ziren. Hemendik, 3 talde sortu zituzten kontrol taldea (CTRL) , erresistentzia ariketak egiten zituztenak (RESEX) , eta jarduera konkurrentea egiten zutenak (CONSEX).

CTRL taldean 16 pazientetatik 13k bakarrik bukatu egin zuten ikerketa, bi pazientek eskatutako protokoloa bortxatu eta beste batek lana aurkitu zuelako. REXES taldean, 14 hautatuetatik, 12k bukatu egin zuten ikerketa, batek protokoloa bortxatu zuelako eta beste bat Enysipelas infekzioa hartu eta ikerketa bertan behera utzi izan behar zuelako. Bukatzeko, CONSEX taldean, 17 hautatutatik 9k bakarrik bukatu egin zuten ikerketa, 2 pertsonak protokoloa bortxatu, beste batek lana aurkitu eta beste bi ospitalizatuak izan zirelako.

Hiru taldeetatik, talde batek bakarrik erresistentzia aerobikoko HIIT entrenamendua egin zuen, beste taldeak ordea, jarduera konkurrentea egin zuen, hau da, erresistentzia aerobiko HIIT entrenamendua eta indar erresistentziaren HIIT entrenamendua.

Programa barruan HITT entrenamendua egin zutenek, astean bitan garatu egin zuten, astearte eta ostegunetan, egunero 60'ko entrenamendua izanik. RESEX taldeak erresistentzia aerobikoa garatu egin zuten, astero intentsitate desberdinak landuz. Hasieran %40ko intentsitatea landu zuten, azkeneko asteetan, %85eko intentsitatean lantzera iritsi arte.

CONSEX taldeak prozedura berdina jarraitu zuen intentsitateei dagokiola. %40ean hasiz eta azkeneko asteetan %85eko intentsitatera iritsiz, bai indar erresistentzia lanean bai eta entrenamendu aerobiko lanean. Indar lanean, 25 minutuko sesioa landu egin zuten astero.

RESEX eta CONSEX taldeetan, talde-denbora interakzio efektu adierazgarri bat aurkitu zuten, gaixotasunaren sintometarako PANASS eskalan (Sindrome positibo eta negatiboen eskalan) gaixotasunaren sintomen puntuazio totalen ($p=0.007$), sintoma positiboetan ($p=0.003$), eta besoaren estentsioaren maximoaren errepikapenean (RM1 testa) ($p=0.016$). Ikerketan sintomak, bizi kalitatea, indarra eta beste aldagarri batzuk aztertu izan ziren.

Gainera, REXES taldean, sintoma negatiboen hobekuntza adierazgarri bat ($p=0,027$), forma motzaren osasun inkestaren arlo fisikoaren kontrolean hobekuntza ($p=0,019$), eta 1RM proban presio torazikoan ($p=0,040$) hobekuntzak aurkitu ziren. Aztertuak izan ziren beste alderdietan ez ziren aldaerak aurkitu.

Beraz, Ikerketa honetan, eskizofrenia duten pazienteen laginean, 20 asteko erresistentzia eta jarduera konkurrentea egitean, bizitza kalitatearen, indarraren eta gaixotasunaren sintomen hobekuntza bat aurkitu izan zen.

Beste ikerketa batek, eskizofrenia kronikoa duen pertsonengan, osasun fisiko eta mentalean intentsitate altuko tarteko entrenamenduak daukan eraginkortasuna aztertu egin zuen (Hsiu et al., 2015).

Ikerketa honek ondorioztatzen zuen, bolumen baxuko intentsitate altuko tarteen entrenamendua (HIIT), hipertentsioa, odoleko azukre maila eta arnasketa gaitasuna hobetzeko jarduera fisiko eraginkortzat hartzen ari da. Honez gain, HITT entrenamendu mota honen pazienteen onarpenek, ariketa programentzako atxikidura hobetu dezakete. Ikerketa honek, HITT-en eraginkortasuna ebaluatu zuen, eskizofrenia kronikoa duten pertsonen osasun mentala eta osasun fisikoa hobetu dezakeen aztertzeke asmoz.

Ikerketarako, 28 paziente hautatuak izan ziren, baina, ikerketa 18 pazienteek bakarrik bukatu egin zuten. 10 pertsonen galera honako arrazoi hauengatik izan zen: 60 urte baino gehiago zutenak (n=2), epilepsia historia bat izan zutenak (n=1), garun lesio traumatikoa (n=1), ezgaitasun intelektuala (n=1), hipertentsioa edo kontrolik gabeko diabetes melitusa (n=3) eta ikerketa behin hasita, aste bat pasa ondoren ikerketa utzi zutenak HIIT entrenamenduan eskatzen zen helmugara ez iristeagatik.

Entrenamendu honek, guztira 25 minutu irauten zuen, intentsitate altuko zirkuitu bat landuz, hasieran beroketa eta bukaeran luzaketa izanda. Zirkuituan lan eta atseden tarteak konbinatu egiten dira, zirkuitu bakoitzak 3'45'' irauten duelarik. Lan intentsu tarteak beti 15''koak izan ziren, atseden tarteak handitzen doazen bitartean [ikusi: taula 1].

HITT entrenamenduarentzako diseinuaren ikerketa

Hasiera: Beroketa 5´

HIIT programa

Zirkuitu bakoitzak 3´ 45´´ irauten du

→ Lana	15 segundo
→ Atsedena	10 segundo
→ Lana	15 segundo
→ Atsedena	20 segundo
→ Lana	15 segundo
→ Atsedena	30 segundo
→ Lana	15 segundo
→ Atsedena	40 segundo
→ Lana	15 segundo
→ Atsedena	50 segundo

Zirkuitua 4 aldiz errepikatu

Bukaera: Luzaketak 5´

1. Taula: HITT entrenamenduarentzako diseinuaren ikerketa

Bolumen baxuko intentsitate altuko tarteen entrenamendua (HIIT), hipertentsioa, odoleko azukre maila eta arnasketa gaitasuna hobetzeko jardura fisiko eraginkortzat hartzen ari da. Honez gain, HITT entrenamendu mota honen pazienteen onarpenek, ariketa entrenamendu programentzako atxikidura hobetu dezakete. Ikerketa honek, HITT-en eraginkortasuna ebaluatu zuen, eskizofrenia kronikoa duten pertsonen osasun mentala eta osasun fisikoa hobetu dezakeen aztertzeke asmoz.

Meg Sullivan-ek egindako ikerketa batean (2016), eskizofrenia lehen gertaera bat pairatu zuten 16 gazte-heldu aztertu egin ziren. 16 pazienteetatik bederatzik, 5 asteetan zehar, ordenagailuz asteen 4 ordutako kognizio sozial kurtso batean eta asteen 4 ordutako memoria neurokognitiboa indartzeko formazio batean parte hartu zuten. Beste 7ak, kurtso berdinak ordenagailuz

egiteaz gain, astero 4 sesiotako ariketa aerobikoa egin zuten (Astean 150 minutu) monitore batzuen laguntzaz, bidalitako ariketa egiten zutela jakin ahal izateko.

Ikerketan zehar, ordenagailuz kurtsoa egin zutenek ez zuten gaitasun kognitiboan aldaketak jasan, ariketa aerobikoa egin zutenek ordea, hobekuntza esanguratsuak lortu zituzten gaitasun kognitiboan. Ikertzaileek diotenez, hobekuntza hau BDNF garun proteina bateri esker izan zen. BDNF proteina hau jarduera fisikoa egitean askatu egiten da. Proteina honek Hipokanpoa estimulatu egiten du, garunaren denbora luzerako memoria eta ikasketa zentroa, neurona berriak sortzeko, neuronen arteko konexioak handitzeaz gain. Konexio hauetan, ikaskuntza aurkitzen da, eta memoria sortzen da.

Nerabezaroan, gizaki guztiek Sinapsis (konexio neuronalak) kantitate bat galtzen dugu, garunak beharrekoak ez diren Sinapsiak ezabatzen dituelako. Eskizofreniarekin, ezabatze prozesu hau ez du behar bezala funtzionatzen, eta beharrezkoak ez diren konexioak ezabatzeaz gain beharrezkoak direnak ere ezabatu egiten dira.

Ikerketaren bigarren taldeak, jarduera fisikoa egiten duenak, BDNF proteina kantitatea %35batean handitu zen, eta igoera kopuru honen erdia lehenengo hasteetan gauzatu zen. Lehenengo taldean ordea, bakarrik ordenagailu kurtsoak gauzatu zutenek, ez zen BDNF mailen igoerarik egon.

Ikerketa honek, eskizofrenia duten gazteentzat, jarduera fisiko eta mentalek itxaropena ekarri dezaketela ondorioztatu zuen.

Attux eta kolaboratzaileek (2013) egindako 6 hilabetetako ausazko entsegu batean, bizitza estilo interbentzio batek, eskizofrenia duten pertsonen pisuaren kontrolean izan dezakeen efikazia aztertu zuten.

Ikerketan, ausazko entsegu kontrolatu bat egin zen, 24 asteetako talde baten eraginkortasuna aztertzeko asmoz, jarduera fisikoaren inguruko sesio bat jorratuz, 60 minutuko sesio bat aurrera eramanez astean behin. Ikerketan Bizitza estilo ongizate programa batean oinarritzen zen (LWP), astean behin aurrera eramaten zena. Hemen eskizofrenia duten pertsonen testuinguruan,

gai desberdinez hitz egiten zen, ahala nola, bizitza estiloa, autoestima eta jarduera fisikoa, bai pazienteekin bai eta familiarrekin ere. Ikerketan parte hartu zuten pazienteak ausaz aukeratuak izan ziren.

Ikerketaren laginean bi talde desberdin sortu egin ziren, talde estandarra, 79 pertsonen osatua, eta interbentzioa jasaten zuen taldea, 81 pertsonen osatua. Beraz guztira 160 paziente ikertu egin ziren.

Ikerketan, 3 hilabete pasa zirenean, interbentzian parte hartu zuten pazienteek 0,48kg-ko jaitsiera izan zuten (CI 95% -0,65 a 1,13) eta talde estandarrek, 0,48kg-eko igoera (IC 95% 0,13 a 0,83; $p = 0,055$).

6 hilabeteak pasa zirenean, interbentzio taldean pisu jaitsiera adierazgarri bat egon zen, -1,14kg-koa (IC 95% -2.11 a 0.19), talde estandarrean pisu igoera bat egon zen bitartean (+0,5 kg, IC 95% -0,42-1,42, $p = 0,017$).

Ondorioz, ausazko entsegu honetan, interbentzio taldeak, ikerketa hasieran pisua mantendu eta gero pisu jaitsiera lortu zuela ikusi egin da. Beraz, pertsona hauek daukaten pisua igotzeko tendentzia honen aurka, bizitza estilo osasuntsu baten estrategiak garrantzitsuak direla ikusi daiteke, etorkizunera begira.

Interbentzio mota hauek, taldean egin daitezke eta gastu ekonomiko txiki batekin. Pisua jaisteko erabiltzen diren medikamenduak baino seguruagoak izanda eta etorkizunari begira, bizitza-luzera eta bizitza kalitatearen hobekuntza bat lortuz.

Beste ikerketa batek, eskizofreniako kirol ikuspegi batean, sintoma psikiatriko eta garuneko aktibazioan, kirol partizipazioak izan ditzakeen efektuak aztertu egin zituen. Ikerketaren helburua, 3 hilabeteetan zehar, eskizofrenia kronikoa zuten pazienteetan pisu gehikuntza kontrolatzea izan zen (Takahashi et al., 2012).

Laginean 23 pazienteek parte hartu zuten, kirola inoiz praktikatu ez zuten pazienteak eta kirola praktikatzen zuten pazienteak aukeratuz. Hemendik bi

talde egin zituzten, kontrol taldea, 10 pertsonaz osatua, eta talde esperimentalak, 12 pertsonaz osatua.

Ikerketan, eskusio irispide batzuk jarraitu egin zituzten. Momentuan eta iraganen substantzien abusua izanda, alkoholarekin erlazionatutako historial bat izanda, animo egoera trastorno bat izanda edo garuneko gaixotasun organiko bat izanda, ikerketatik kanpo gelditu izan ziren.

Paziente guztiak eskuinak ziren eta denak garuneko anomalia anatomikoak alde batera uzteko, erresonantzia magnetiko batetik pasa egin ziren.

Proposatu zuten jarduera modulua, jarduera aerobikoz (ibili eta trostan egin), gihar luzatze ariketez (gihar luzatze estatikoa gorputz osoan eta gihar luzatze dinamikoak beso eta hanketan), eta kirol ariketez (saskibaloia) osatu egin zen. Jarduera moduluak 30-60 minutuko iraupena eduki zuen, eta egunean bi aldiz banatu egin zen (60-120 minutu egunean) astelehenetik ostiralera.

Programa hau udan egin zen, eta iraupena kondizio klimatologikoengatik (tenperatura eta hezetasuna) eta partaideen fatiga fisikoagatik definitua izan zen. Partaide bakoitzarentzat, ariketa intentsitate maila 11-13 izan zen (BORG eskala baloreak).

Bi taldeetan, ikerketaren hasieran eta bukaeran, gorputz masa indizea (GMI), Sindrome Positibo eta Negatibo Eskala (PANASS) eta erresonantzia magnetikoarekin, kirol akzioekin erlazionatutako akzioen ikertzean pazienteek daukaten garuneko aktibazio datuak atera egin ziren.

Emaitzetan, GMI eta PANSS eskalako datuak nabarmen gutxitu egin ziren programa aurrera eramanez taldean, ez ordea kontrol taldean.

Ariketa fisikoa, eskizofrenia duten pertsonetan, gero eta gehiago erabiltzen ari da obesitate eta pisu gehikuntza kontrolatzeko. Ikerketan parte hartu zutenek GMI-a gutxitzeaz gain, kirol praktikekin, eskizofreniaren sintoma psikiatrikoetan eragin positiboa lortzen dela erakutsi egin zuten.

Grassmann eta kolaboratzaileek (2007), eskizofrenia duten pazienteen artean, funtzio exekutiboaren eta intentsitate moderatutik indartsura (MVPA) doan jarduera fisikoaren arteko erlazioa ikertu egin zuten, gaixotasunaren iraupenagatik diferentziak aztertuz.

Ikerketaren helburua, eskizofrenia duten pertsona helduetan, intentsitate moderatutik indartsura (MVPA) doan jarduera fisiko eta funtzio exekutiboaren arteko erlazioa aztertzea izan zen.

Zeharkako ikerketa honetan, eskizofrenia zuten 78 paziente (adin media [SD] 42,4 [11,4] urte, gaixotasunaren iraupena 17,0 [11,0] urte) aztertu egin ziren, %58,2ak gizonezkoak izanda. Astero MVPA (azelerometroak erabiliz) eta funtzio exekutiboa aztertu egin ziren.

Hasieran, 140 pertsona apuntatu egin ziren ikerketara, horietatik, 62 pertsona ikerketatik kanpo gelditu egin ziren. Parte hartzaileen adina 18-64 urte artekoa izan zen.

Pearsonen korrelazioak aztertu egin ziren, erregresio lineal batek arraitzen ziola. Parte hartzaileak lehenengo batera analizatuak izan ziren eta ondoren, dikotomizatuak izan ziren gaixotasunaren iraupenaren arabera. Ikerketak 7 egun iraun zituen eta datuak egunero aztertu ziren.

Bigarren sesioan, parte hartzaileek Eskizofreniarenentzako ebaluazio neurokognitiboaren zenbaki, letra eta sinboloen kodifikazio probak (BNASS) burutu egin zituzten funtzio exekutiboa aztertzeko. Honez gain, 7 egun jarraituetan zehar azelerometro bat eramatea eskatu egin zitzaizen, jarduera fisikoaren neurria eta datuak izateko.

Ikerketan, parte hartzaileek egiten zuten jarduera fisikoa, dosi baxuetan, neurrizkoan hasi eta indartsura iristera pasa behar zen, astero 150 minutuko jarduera fisikoa eginez, 10 minutu sesioko.

Ikerketa honen emaitzetan, 15 urteko gaixotasuna zeuzkatenek, aste osoko MVPA eta lanaren memoriaren errendimenduaren artean asoziazio adierazgarria egin zen. 15 urte baino gutxiagoko iraupeneko gaixotasuna zutenek eskizofreniarenentzako ebaluazio neurokognitiboaren zenbaki eta letra probetan burutzea iragarri zuen. Honetaz gain, jarduera fisikoa, eskizofrenia duten paziente batzuetan, funtzio exekutiboari lotuta dagoela badirudi.


Beste zeharkako ikerketa batek, eskizofreniaren sindrome metabolikoaren eta bizitza estiloaren faktoreak aztertu egin zituen. Ikerketa honen helburua, eskizofrenia zuten pazienteetan bizitza estiloaren faktoreak ebaluatzea izan zen, dieta eta jarduera fisikoa sartuz, sindrome metabolikoaren prebalentzia estimatzeko (Heald et al., 2017).

Lagina 37 pertsonakoa izan zen, partaideen batz besteko adina 46,2 izanik. Gaixotasunaren batz besteko iraupena 11,6 urtekoa zen eta ikerketaren iraupena 3 hilabetekoa izan zen.

Ikerketa, 3 hilabetekoa izan zen, eta pazienteek ariketa fisiko moderatua egin zuten, aste guztietan, egunero 10-15 minutuko iraupenarekin.

Jarduera aztertzeke asmoz, pazienteek, 1-10 tarteko eskala bisual bat pasa egin zuten, honako hau erantzunez: 'Azkeneko 3 hilabeteetan egindako jarduera fisiko indartsua kontuan hartuta, fisikoki nahiko aktiboa kontsideratzen duzu zure burua?'. Erantzunek, $\pm 5,0 \pm 2,9$ media eman zuten, 0=fisikoki oso ez aktiboa izanik eta 10=fisikoki oso aktiboa.

%41,9ak azkeneko astean ariketa fisiko indartsua ez zuela egin adierazi zuten. %35,5ak ariketa fisiko indartsuko <1 ordu egin zuten, eta bakarrik %29ak bakarrik egin zuten ariketa fisiko indartsuko ≥ 10 ordu. %29ak ikusi zuten, ez zutela jarduera fisiko moderaturik egin aste horietan zehar eta, %39ak jarduera fisiko moderatuko <1 ordu egin zuten astero [ikusi: Grafikoa 1].



Grafikoa 1: Azkeneko 3 hilabeteetan egindako jarduera fisiko indartsua

Inkesta erantzun zuten 31 pertsonen artean, 21 pertsonek, egunero, <1 ordu ibili egin zutela esan zuten, 14 pertsonek ≥ 10 minutu, beste 12 pertsonek > 10 minutu 2-6 aldiz astean zehar eta azkeneko bost pertsonek astean zehar behin edo inoiz ez.

Heald eta kolaboratzaileak egindako beste zeharkako ikerketa batek, eskizofreniaren sindrome metabolikoaren eta bizitza estiloaren faktoreak aztertu egin zituen, helburua, eskizofrenia zuten pazienteetan bizitza estiloaren faktoreak, dieta eta jarduera fisikoa sartuz, sindrome metabolikoaren prebalentzia estimatzea izanik.

Ikerketa honetan, hiru aurkikuntza egin zituzten: Sindrome metabolikoaren eta eskizofreniaren arteko prebalentzia handi bat, tabakismoaren, ariketa fisiko desegokiaren eta elikadura txar baten eta eskizofreniaren arteko prebalentzia eta azkenik, inkestetako pazienteen proportzio handi batek, beraien bizitza estiloen ikuspegia osasuntsua ez denaren iritziak.

Azkeneko aurkikuntzari lotua, autoreek diotenez, arazo nagusienetako bat, eskizofrenia duten pazienteek daukaten informazio faltari lotuta dago, hau da, ez dira beraien bizitza estiloari buruz aurretik informatuak izan. Askok, beraien bizitza estiloa desegokia dela badakie, beraz, hau aldatzeko, beraiekin lan egitea posible dela diote, gaixotasun metabolikoa izateko arriskua txikitzeko asmoz.

Kurebayashi eta kolaboratzaileek (2017), zeharkako ikerketa batean, eskizofrenia zuten pazienteen menperatze neurokognitiboaren funtzioen eta jarduera fisikoaren arteko korrelazioa aztertu zuten.

Honetarako, eskizofrenia zuten 29 paziente ikertu egin ziren (16 ospitalizatuak eta 13 ambulategikoak, adin media $56,0 \pm 11,4$ izanda). Momentuko sintomak, PANASS eskalarekin neurtu egin ziren eta funtzio neurokognitiboak Cognitrax eskala erabiliz, indize neurokognitibo konposatu bat (NCI) eta 11 menperatze emaitza sortzen dituenak. Proba hauen ondoren, pazienteek HJA-750C azelerometroa erabili egin zuen aste batean zehar, jarduera fisiko maila eta iraupena neurtzeko asmoz. Parametro kognitiboaren eta jardueraren arteko korrelazio partzialaren analisia egin ziren.

Ikerketak 7 egun iraun zituen, eta laginaren inklusio irizpideak honako hauek izan zituen: Bakoitzaren medikuaren eskizofrenia diagnostikoa izatea, medikuaren eta pazientearen onarpena izatea, ambulategi bateko tratamendu boluntarioan parte hartzea eta Japoniako legeak markatzen duen ospitalizazio boluntarioan parte hartzea.

Ikerketan parte hartu zuten pazienteek HJA-750C azelerometroa triaxiala erabili egin zuen, gerrian eramanez, aste batean zehar, jarduera fisiko maila eta iraupena neurtzeko asmoz. Parametro kognitiboaren eta jardueraren arteko korrelazio partzialaren analisia egin ziren.

HJA-750C azelerometro onek MET (baliokide metabolikoak), ariketak (Ariketa: $> 3\text{MET} \times \text{minutuak}$), egunero egindako pausuak, pausuentzako denbora totala, kaloria kontsumoa eta egunero egindako jarduera fisiko sedentario ($<3.0\text{ MET}$), moderatu ($3-5.9\text{ METs}$) eta jarduera fisiko indartsu ($\geq 6.0\text{ METs}$) minutuak.

Jarduera fisiko handiena eta funtzio neurokognitiboa hoberekin, ambulategi pazienteetan aurkitu egin zen.

Osasun fisiko txarra eta eskizofrenia erlazionatzen zuten errebisio batean, ebidentzian oinarritutako interbentzioak behar zirela ondorioztatu zuten, osasun desberdintasun nagusiak txikitzeko asmoz (McNamee et al., 2013).

